

◆
DEBAN
OSTIRALA, IRAILAK 5

BEGIRADAK

PLAZA ZAHARREAN
"ITURRI ONDOAN"
22:00ETAN



Antolatzailea:



DEBAKO UDALA

HITZ BATZUK

Uda parteko ostiral iluntzetan ITURRI ONDOAN antolatu diren kultur jarduerak helburu nagusi bat izan dute: uda partean ezkutuagoan gelditzen den euskara kalera ateraz, herritarrak elkarrekin biltzeko tarte atseginak eskaintzea.


Horretarako, disziplina desberdinetan ari diren sortzaile profesionalekin kontatu dugu batetik (aktoreak, musikariak, dantzariak,...), guztiontzako erreferente izan daitezkeelako. Herrikoekin ere bai, bestetik. Bertan ere baditugulako, sortzaileak, artistak,... eta horiek ateratzea ere inportantea delako. Ez daude guztiak, noski. Batzuekin hasi gara, lan egiteko molde berriak probatuz; disziplina ezberdinetan dabiltzanak harremanetan jarriz eta euskarazko harreman-sare berriak josten saiatuz.

Liburuxka honetan bildutako piezak, irailaren 5ean herritarren aurrean eskainitako BEGIRADAK saioan irakurri ziren, jolas batetik abiatuta: herriko bost gazteri irudi bat sortzeko eskatu (argazki bidez, bideo bidez...), horietako lan bakoitza beste hiru herri-tarri banatu, eta, horiek oinarri hartuz, literatur pieza txikiak idazteko eskatu genien. Irudi bakoitzak, beraz, hiru interpretazio diferente, hiru begirada desberdin izan zituen. Guztira 5 irudi eta 15 hitz sorta, liburuxka honetan bildu ditugunak.

Pozgarria izan da udalarentzat proiektuaren bilakaera ikustea, ideia planteatu eta erantzun ezin hobea jasotzeaz gain, proiektua aurrera eramateko parte hartzaileek erakutsi duten inplikazioagatik. Eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik; baita, hasiera batean proiektuan egon ez arren, emanaldian irakurle eta aurkezle lanak egiteko prest agertu ziren guztiei ere..

Inpresioa daukagu bihotz-buru-gorputz zatitxo bana ipini dugula proiektu honetan eta horrexek egin duela berezi. Haientzat ere, guretzat bezain gogobetegarri gertatu izana espero dugu.

Elkarlanean jarraitzeko indarra eman diezagula. 2014-UDALEKO EUSKARA BATZORDEA



LEVIATAN

Leviatan, Leviatan, itsas munstro berekoia,

Leviatan, Leviatan, itsas olatu erraldoia.

Begira-begira nago ni

Aurrean daukadan olatu honi,

begira-begira zaude zu

nik begiratutako Olatu berari.

Baina nik edertasuna somatu dut,

Hondamena ordea zuk.

Edertasunaren zertzeladak eta hondamenaren besarkadak

ari dira elkarregaz dantzan;

Leviatan, Leviatan, horretxek jartzen gaitu sarritan zalantzan.

Egia zein ote den galdezka,

Egizko egirik ba ote den jakitea izaten dugu sarritan geure kezka.

Baina bakoitzak bereari eustea da

gure eguneroko tentazioa,

norberaren egian, norberekoikerian uste baitugu dagoela salbazioa.

Eta berriro olatuari so natzaio,

eta aurretiko edertasunari, edertasun gordinari,

hondamena gailendu zaio.

Zure begiek berriz,

ilusio, irrifar eta eztiz,

edertasuna isladatzen dute, eta ezeroso aurkitu naiz berriz.

Egin dit keinu orduan zureganako inbidiak,

abandonatu nau sustraitik guztiz erroturik neraman edertasunaren

paradisuzko egiak;

erantzun diot amorrazioari garrasika,
biraoka, nigarrez, nigarrez eta zotinka,
uneko ondoezari erasoz, uneko sentimentuari harrika.
Hala ere badakit ekaitzak beti dakarrela barea,
eta eusten badiot, zinez sinetsita,
iritsiko dela unea,
iritsiko zaidala berriro lasaitasuna,
lortuko dudala ferekatzea berriro pakea.

Zuei dizuet galdetzen,
gaur orain eta hemen,
olatuari aurrez aurre begiratu eta
edertasunari ala hondamenari egingo diozue amen?
Leviatan, Leviatan, olatu erraldoia,
Leviatan, Leviatan, itsas munstro berekoia

Irudiak: Joseba Etxeberria

Hitzak: Jesus Mari Amasorrain

BEGIRADAK.

Argazkiei begira jarri eta galderak egiten dizkiogu argazkiei: Zer da? Zer ikusten ari gara? Zuok, argazkiok, zer diozue? Batzuetan argazkiek galdera batekin erantzuten digute



edo birekin;



beste batzuetan aukeran lagatzen digute erantzuna botiletan sartuta.




Nola hitz egiten dute, baina, argazkiok? Begiradez.



Begira begiei, ez begiez, baizik bihotzez. Ahoa ixten denean begiek mintzo; begiak ixten direnean ahoak garrasi. Zein min da minago? Zein garrasi garrasiago?



Begiak itxita kalean deiadar egiten duen gizonarena ala, ahoa itxita, kandela eskuan duen andrazkoaren begiradarena?



Argazkiak bide ematen digu inoren larruan sartzeko; ez beti, ordea, begiak estali eta ahoa ixten digunak ez digu aurrerabiderik ematen. Ahotsa eta begirada ukatuz, “zuek hor eta ni hemen” esaten ari zaigu. Errespetuz alde egitea besterik ez dugu.




Goazen bada usoekin batera amonaren leihora. Begira usoen begiei, guri begira galdezka ari dira. Harrituta esaten ari zaizkigu: “amonak uste du bere ogi papurrak jatera etortzen garela goizero bere leiho ondora, gu, ordea, zergatik ez den gurekin hegan etortzen galdetu nahi diogu. Ez digu erantzuten ez dituelako begiak lurretik altxatzen, lurrean oinak bezain tinko iltzatuak ditu”



Hitzak ez dira beti beharrezko. Isil nadin, beraz, nire ahotsak ezin baitu argazkiko begiraden edertasunaren adinako hitzik atera.

Irudiak: Kauldi Iriondo

Hitzak: Mikel Aizpurua



Zauritu naute eta ez naiz odolustu

Ez da ez hari ez katerik, betor argia, betor epela, betor txuria

Zauritu naute eta ez naiz odolustu

Azpian, guztiaren azpian

Gainean, guztion gainean

Lurrean, airean, gogorrean, hezean

Zauritu naute eta ez naiz odolustu

Ezerezera jausia naiz

Eza den denaren gainera,

Guztia zenetik

Guztia denaren azpira

Zauritu naute eta ez naiz odolustu

Ez da pixurik, ez da haizerik, ez da soinurik, ez da ezer denik

Argiak itsutzen nau

Oihu egiten dut

Ahots mutua

Oihu gogorra

Garraxi ozena

zauritu naute eta ez naiz odolustu

zauritu naute eta ez naiz jauzi

zauritu naute eta ez naiz hil

zauritu naute eta denbora segundoz segundo odolustu da.

Irudia: Nere Oria

Hitzak: Goizane Aizpurua



Zer da mugagabetasuna?

Eguneroko bizitza, eginbeharrak, kateak. Lotuta arrazoirik gabe. Aurretik, etorkizun mekanikoa, pentsatua, aldaezina. Kanean zoazela etxeak gainean erortzen dira, kaleak estutu eta airea loditzen doa. Arnasestuka, birrikak lanean jarri arren, ez dago modurik barneko hutsunea betetzeko, ezin lasaitu ezinegona.

Atera ba, hegoak! Hankak arindu eta tira urrutira. Zerua argitzen doa, lurra biguntzen, airea arintzen. Zuhaitz adarrak haizean dantzaka, natura zeure inguruan, ondoan, barnean. Utzi hostoak zure zentzumenak betetzen: Edertasun lasaigarria begientzat, zurrumurru melodikoa belarrientzat, zimurtasun atsegina eskuentzat. Etzan belarretan eta hartu sakon arnasa! Hustu barneko pisua, arnas hartze bakoitzarekin arindu gorputza, altxatu arima, garbitu pentsamenduak.

Oinustu, biluztu, sartu urjauzian, utzi ur tantak azaletik irristatzen. Sentitu barne indarra haunditzen, oihukatu, atera arima ahotik!

Zer da ba, mugagabetasuna? Urjauziko hortzadarraren bukaera, oihu baten azken astindua, besarkada amaigabea, umearen irrifarrea, begirada sakon baten atzeko indarra... Oro har, aske sentiarazten gaituen gauza oro. Geure buruan murgildu eta erantzunak bilatu besterik ez da behar. Izan ere, askatasun pertsonalaren giltza, guk geuk daukagu.

Irudiak: Nora Mugartza

Hitzak: Maria San Juan



Badoa eta badoa gizateria etengabeko noraezean,
Gutxi batzuen interes makurrek bultzatutako bidean,
Indarraren arrazoia, arrazoibide guztien gainean,
Diruak eta botereak itsututa bere galbidean.


Munduko desjabetuen odola zurrupa eta zurrupa ase ezinean,
Jakintsuen burmuina dastatuz zilarrezko erretiluan,
Sasi-pentsalariak justifikatuko dute zerbaiten izenean:
Zibilizazioa, erlijioa, modernitatea, edozerk balio du finean.

Baina jaioko dira berriak, esnatuko herriak,
Elkartuko dira munduko desjabetu guztiak,
Eta osatuz joango dira olatu erraldoiak
Beren barnean irentsiko dituzten odol zurrupariak.

Jaioko dira giza-duintasuna babestuko duten agintariak,
Gizateria eta izadia lehenestuko duten pensalariak.
Jarriko dira elkartasunezko gizarte baterako oinarriak
Eta askatuko dira beren izaera ukatzen zaien herriak.

Gora munduko desjabetu eta herri ukatu guztiak!

Irudiak: Aitor Oñederra
Hitzak: Karlos Larrañaga



Hondartzara joan, hondarretan jarri eta itsasoari begira gelditu naiz

12 ordu daramatzat

Gaur ez dut ondo lo egingo

Aurrean dut itsasoaren oldar giza irenslea

Haren zarata amaigabea

12 ordu daramatzat begira

Gaur ez dut ondo lo egingo

lehorrean etzanda 12 ordu daramatzat itsaso haserreari begira

Begietan islatuz itsasoaren itzeltasun zitala

haren infernuko aparra

gaur ez dut ondo lo egingo

12 ordu daramatzat itsasoaren botereaz txundituta

Nire txikitasunean txiki, murriz, nano sentituz

itsasoaren gazitasunean murgil

Gaur ez dut ondo lo egingo

12 ordu daramatzat itsasoari begira

Kremarik gabe eguzkitan

Irudiak: Joseba Etxeberria

Hitzak: Manex Astigarraga



Zer ez nuke emango nire arimaren pixua txorien hegaldia bezain arina izateagatik...eta aukeratutako momentuan denon begibista eta irismenetik hegan aldegitoko ahalmena izateagatik.



Bizia apal-apal ematen saiatu naiz baina nahikoa on izan ez naizenaren zama hau...

Barkatu ahal izango al dizkit Jaungoikoak bekatuak kandela baten ordainetan edo urteek goldatu didaten begietako tristura honen truke?



Orduak eta orduak errezuan, penitentzia itzelak urteak joan eta etorri, erromes modura egindako kilometro eta kilometroak..... Eta azkenean zertarako? Maite dituzunak berdin-berdin eramaten ditu berak aukeratzen duenean.



Egiten dudana eginda ere, arimako astun hau ez dit apaizak kenduko beraz...zurrutada bat gora behera..."ave maria " bat gehiago edo gutxiago..... nori axola. Txin-txin!



Lanean nagoela ere aitorlekuan banengo bezala sentitzen naiz. Momentuoro begi zelatari batzuen presentzia sumatzen dut. Nire irudipena bakarrik ote?



Barrenetik atera dizkidazue erraiak! Samin hau ezin dut gehiago ametitu... Nahikoa jasan dugu jada!



Asteroko legez, elizari arimaren baretasuna berrerosi diot erretoreari bekatuak kantatzearekin bat. Iganderoko salda pakean hartzeko bada ere.



Niri begiratu ere ez! Errugabea naiz
guztiz! Mezatara joan gabe...salda
hartzea besterik ez dut egin! Ave Maria
Purísima...

Irudiak: Kauldi Iriondo

Hitzak: Ainara Sedano



HAN

Oinarrizkoak zarete. Asteburueroko ardo-jana soilik duzue buruan. Amaikak Baten golak. Noiz eta norekin aseko duzuen adur-jarioa.

Oinarri-oinarrizkoak zarete. Hurkoaren zorionari begi-zeharka bizi zarete. Larrosa-usaizko amets gosez, ohe kirastuetan. Eguzkiari erreguka, euri-lapatsetan blai.

Halakoxeak zarete, ba. Nahiago duzue soilkerian bizi zuen benetako minei aurrez aurre begiratu baino.

Paso.

Eta banoa, gaur ere bai, zuhaitz artera, basoko bakardadera. Han ez daukat disimulatu beharrik: zer moduz zabiltzaten axola zaidan itxurarik egin beharrik. Han ezin nauzue zelatatu. Neure soilean arinagoa zait erro-mina. Ez daukazue zertan odoltxartu.

Arnasa lasai hartzea gauza handia baita. Oinarrizkoa.

Irudia: Nere Oria

Hitzak: Rikardo Idiakez



-1-

Oi, trumoi, hator!
Zer dun esateko?
Zer mugitzeko, astintzeko?
Ikatza ari dun
gogor, bortitz,
bularrak zartatzen
hesteak urratzen
saihetsak kolpatzen...
beltz, garratz,
barne-bazterrak zikintzen
barru-txokoak inarrostean
Bizi-malkoz ari naun hustutzen
ari naun ahitzen.
Hator, trumoi, hator!
Ez haiz, ez, jada, arrotz!
Zer dun gehiago mugitzeko?
Zer astintzeko?
Ari naun hiltzen ari naun
hiltzen
hiltzen...

-2-

Narrasean nabil,
arrastaka,
basamortuan sugeak nola.
Itzal ilunetan astun.
Neke.
Narrasean,
narrasean nabil
mortu honetako ur tanta bakanei
desesperatuki lotua.
Bizitzari eutsi nahi eta,
lur idor hauetako landareak lez,
egunsenti-ilunabarretan azalduz soilik
ez ihartzeko
ez ximeltzeko...

Han dakusat eguzkia
itzel, eder,
galant.
Hura dut amets.

-3-

Eguzki izpi bat nahi nuke ostu,
lapurtu,
ebatsi,...
Edo opari hartu!
Nola hala eskuratu!
Izpi horrekin
(indarño, ttipitto),
urratuak osatu, zartatuak josi
zikinduak garbitu...
Eta ur tanta gehiago bildu,
ez ahaztu.
Errekastoak marraztu,
eta, ametsa helburu,
hantxe,
hantxe sartu,
eguzkira heltzerako,
azken eguzkiratzerako,
izateko uholde
izateko trumoi, haizete.
Izateko ur jauzi, oparotasun, argi.
Bizi.
Bake.

-3- (bis)

Eguzki izpi bat
Eguzki izpi bat nahi nuke eskuratu!
Izpi horrekin
urratuak osatu,
eta ur tanta gehiago bildu!
Eguzkira heltzerako,
azken eguzkiratzerako,
izateko uholde
izateko trumoi, haizete.
Izateko ur jauzi, oparotasun, argi.
Bizi.
Bake.

Irudiak: Nora Mugartza

Hitzak: Amaia Zinkunegi



...

GIZONA: Alemaniarren Audi berri hauek hegazkinak baino erosoagoak dira, eta pilotuak ere ez dira atzean gelditzen...

Heltzeko irrikitan nago, Galizian izan ginetik ez dut ikusi.

Zer afari oparituko dit gaur nagusiak? Hain xarmangarriak izaten dira ... Bete-beteen asmatzen du beti, eta erabat gaztetzen naute.

EMAKUMEA: Hara! Hona hemen gure txorimaloa.

GIZONA: Hemen dator, ea zein sorpresa duen gaurko...

EMAKUMEA: Nahiko merke atera zait gaurko afaria ere... Hiruzpalau langabeturen kontura.

GIZONA: Ze itxura ona.

Ederra edaria!


EMAKUMEA: Jajaja, ekialdekoen odola beti izan da bikaina.

Platerean zerbitzatzen dizkiodan ideiak errenkadan botatzen ditu jendaurrean, bereak balitu bezala.

GIZONA: Oooohhh, beti bezain xamurra eta odoltsua

Irudiak: Aitor Oñederra

Hitzak: Ane Rodríguez



Argia. Argi izpi bat ikusi nuen izarrik ageri ez zen gau ilun hartan. Itsasargi ttipi bat zen ekaitzaren erdian, Prometeo bailitz haitz bati katigatuta, eternitate osorako bertan izatera kondenatuta. Nolabait zu zinen bila nenbilena, zu zinen nire Alexandriako faroa. Bihotzak ziostan posible zela aurrera egitea biderik ez zen ur beltzetan.

Zugana abiatu nintzen nuen guzia eman ez horretarako. Zuganaino iristea beste helbururik ez, deus gorde gabe. Hil ala bizi, iristea. Baina zoroa ni, uste bainuen maitalea bainintz hartuko ninduzula besoetan. Moirek aspaldi ebatzi zuten nire patua eta oraino mundu honetara lotzen ninduen hariak osorik zirauen arren, hatz artean zerabilten orain, nik hala zela jakin gabe.

Zugana iristeaz bat bete nuen nire izatearen zioa. Besarkatu zintudan biok bat izan arte, horren estu orro batez hautsi nintzela mila zatitan. Urratu ziren, inguratzen zintuzten haitzen ertz zorrotzekin, nire bihotza eta barrenak. Nire izatea bera airean desegin zen ia, zugana iristean. Han gelditu nintzen harkaitz artean barreiatuta, hondartzetan usteltzen diren marmoka hilak bezala. Beste olatu bat etorri eta berriz itzularazi ninduen arte betiereko iluntasunera. Berriz ere iluntasunera, olatu artera.

Irudiak: Joseba Etxeberria

Hitzak: Mattin Urbieta

Hegan

Zeure errautsak leihoan uztea bururatu zitzaidan eguzki izpi goxoren bat oparitzekotan eta bat batean zeure sena ikusi nuen lurrean sakabanaturik, errautsez beterik beheko lur zaharkitua , ene Agustinen bizi-hondarrez ...
Usoak hurbildu ziren orduan, hautsa aienatuz, beraiekin eraman zintuztelarik bere momentuan dastatzen utzi ez nizun zerura.

Geroztik eguerdiro hurbiltzen zaizkit leihora , neure bakardadea momentu batez hautsiz.

“ Kutxa batean baino, nahiago zaitut hegan... “



Ikusezinak

Kristala gardena da eta ni haragizkoa. Asko gara ordea ikusezinak. Txoko malenkoniatsu honetatik errukiz begiratzen diot gizarteari. Gazte, azkar, eder, eraginkor eta arin izan nahi duen gizarte gaixoari. Ni, gu; zama astun bihurturik, ikusle izatera kondenatuz.

Motelegi agian, zaharkituegi, tentelegi, gaixoegi.

Egunen batean ohartuko dira bizitza beste nonbaiten ezkutatzen dela.

Esaterako, egurrezko kabinen bestaldean.



Oihua

Ahots kordak eta arima ez dira sekula zimurtzen.

Ikusezintasuna salatzen, ikusgarri bihurtzeko, kalera atera eta plazaren erdian oihu egitea besterik ez zaigu gelditzen.

Hemen gaude; existitzen gara!



Tik-tak, tik tak

Itzal hutsa dira taberna zuloan eta alkohola beraien altzo gozo bakarra.

Hormako ordulariaren orratzak aspaldi izoztu ziren.



Aulki hutsak

Hona etortzea da daukadan aringarri bakarra edo hori uste nuen fededun bilakatu nintzen egunean. Oker nengoen bada: hemen minak berdina izaten jarraitzen du.

Maitasun gosea,
besarkada ikusezinak, ukiezinak, sentiezinak;
urdailean zeharkaturik daukadan oilasko hezur irenstezina.
Jainkoaren etxean ere aulkiak hutsik jarraitzen dute,
Ene printsesak, non zaudete...

*Erregea errege sentituko ote da tronu inguruko eserlekuak hutsik daudenean?
Aulki hotzak, aulki hutsak....*



Eskailera

Bizitzaren eskailera. Zimurren eskailera. Emakumeen eskailera. Alargunen eskailera. Heriotzerako eskailera.



MaiteMINA

Begiak estaltzen ditut eta hemen sentitzen zaitut, neure parean eserita, garagardoa gogor eutsiz eta honi galdetuz ea zergatik lapurtu zizun emaztea, lana, duintasuna... Alkohol botilak ez ezik nik erantzuten diot zeure galderari.

"Ez zenuelako zure emaztea maite, ezta zure lana ere... Duintasuna nola izan? " Biok genekien zein zaila zen gizarte honetan bizirautea elkar maitatuz , horregatik genuen taberna elkargunetzat.

Gizonak tabernan, tabernan alkohola, alkoholean hondamendia : gizarteak onartua.

Bi gizonek elkar maitatzea : gizarteak EZ onartua.



Gizona

Gizonak kalea maite du. Goizean goiz mahaia ipini eta bertan igarotzen du iragana.

Ezagutzen dutenek badakite aurpegi gogor horren atzean, hizketaldia eta gertutasuna ezkutatzen direla. Ezagutzen ez dutenek zorotzat daukate. Berari bost axola, zoro edo malenkoniatsu; bada.

Espaloia hutsik dagoenetan triste sentitzen da bizarduna, baina norbait etorri bezain pronto, mota guztietako elkarrizketez josten da kalea.

Hil arte ez dio bertara joateari utziko; noizbait leku horretan izan zuen taberna zaharrari fidela izaten jarraituz.



Irudiak: Kauldi Iriondo

Hitzak: Ione Fernández



Nork lapurtzen dizkigu ametsak
Zerk lotarako desira
Gaupasen eta begizuloen
errudunak mila dira
Orain ezker ta orain eskubi
Ondoren izarei tira
Guztiok ibili gera noizbait
Ohean jira ta bira
Izarrak margotuta ez dauden
Sabai beltzari begira

Guraso eta seme alaben
Erlazioen ikurrak:
Sehaska astintzen pasa behar
Gaueko ordu apurrak
Zortziak dira juergatik bueltan
Ai, gurasoen muturrak
Etxetik noa, esploratzera
Ta ondorengo agurrak
Jakin guztiok izan gerala
noizbait ametsen lapurrak

Alboko otsoak labankadaz
Ilusioak moztean
Espetxetako ta erbesteko
Ohe gogorren gainean
Bihotz hautsien minaren minez
Lo hartu ezin denean
Tripazorriek loa jatean
Bonba hotsek esnatzean
Begiak bildu ezinik eta
Amets gaiztoen artean

Begirada baten ezkutuan
Zenbat muxu, zenbat sasi
Ametssetako mamuen kontra
Egin dezagun garrasi
Emozioen ipuin zorotan
Beldurrik gabe nahasi
Saiatu ezkeru berdin baitu
Galdu edo irabazi
Norbere ametsen bideetan
Gozatuz gozaarazi

Irudia: Nere Oria

Hitzak: Josune Arakistain



ISLANDIAKO LEZIOA

Bila,
bila gabiltza
saihets arteko hutsa
bete nahi,
geugan bat izan nahi,
bila.

Artea,
arteko hutsa dugu
baitako maisutasunaren ontzi.
Gure izatea argizkoa da,
hutsa bera da betea
emari agortezin.
Baina bizi gara
barreneko mintzoari entzun bage.

Argi egarriz ibiltaria
ainubean dabil,
zeren bila dabilen ez dakielako dabil ibilian,
zerekin aurkitu nahi ez duen badakielako.
Dakielako ez dakiela zer bilatu,
horregatik dabil.
Ibiltaria argia begiztatzeko esperoan dabil,
dohakabe,
bihotzeko argitik itzuri

dabilela dakielako ez daki non bilatu.

Argiminez.

Ikusten ez denaz ezin fido,
ez du bake usainik ere bihotzean.

Begiak dituzu,

argia ikusteko,

xendra ospeletan galdua zara ordea,

haragizko lurraldeetan itsu.

Ilunbea ikusteko besterik ez dituzulako.

Bereizmenaren zentzua galduta,

anabasaren ozeano ilunean igeri,

hitz saldoa zara. izaki plastikoa.

Ez duzu zorion asaldatua besterik ezagutzen.

Zaporeen bizitasuna, plazeraren desira,

azaleko irudikeria zara.

liluraren maizter!

Galtzadan barrena soslai eder bat antzeman dezakezu

lipar batez,

Aurkitu gura duzun hori, iheskor zaizu.

Zaren baitakoaren edertasuna

iragankor zaizu.

Izaki intermitentea baitzara.

Ilunbea argiz mozorrotzen delarik
Haren lilurak harrapatzen gaitu taigabe.

ADI! Begiz dakusaguna, beti da lauso

oro da ilusio!

Nikeria bazter, beheratasunean hartu babes,

Apalak baino ez baitu bihotzean irarririko mintzoa oroitzen.

Hala baino ez, egiaren argitan geugan bat izaterik.

Hala baino ez, maitasunaren itsaso baztergabeen tanta izaterik.

Irudiak: Nora Mugartza

Hitzak: Joanes Esturo



Jatetxe batera joatea erabakitzen dugunean, askotan aurretik izaten dugu menua aukeratu, badakigulako leku horretako espezialitatea zein den. Eseri, eskatu eta ezer baino lehen edaria zerbitzatzea da ohikoena.

JesuKristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 51-58

Jesusek esan zien:

–Bene-benetan diotsuet: Gizonaren Semearen gorputza jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire gorputza jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta neuk piztuko dut azken egunean.

Zerbitzariak agindutakoa ekarri du, baina zeinek agindutakoa? Bezeroak? Zerbitzariak? Hala uste duzue?

Menua aukeratu, prestatu eta zerbitzatzeko prest jartzen duena ez da bistan dagoena, ezkutuan dagoen sukaldaria baizik. Sukaldaria , sukaldariak?. Ez dute Michelin izarririk izango, baina ziur egon haiek nahi dutena jaten eta edaten dugula, haiek nahi dutena egiten dugula, gaurko Jainkoak haiek baitira.

AMEN

Irudiak: Aitor Oñederra

Hitzak: Arantza Iriondo